



ZESTOAKO UDALA

AKTA

2020ko azaroaren 26an Udal Batzarrak buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoan, bi mila eta hogeiko azaroaren hogeiei eta seian, arratsaldeko zortzietan, **Mikel Arregi Urrutia** jauna mahaiburu delarik, korporakide hauek biltzen dira: **Nerea Odriozola Larrañaga, Ruben Alberdi Uranga, Beatriz Zubia Arambarri, Aitor Salegi Martija eta Pilar Perurena Larrañaga**, EH BILDU Udal taldeko zinegotziak eta **Garikoitz Mendizabal Etxeberria, Eva Mangas Beobide, Katixa Monreal Cuesta, Javier Manteca Martin eta Karmel Bedita Mendizabal Irigoienek** EAJ-PNV Udal taldeko zinegotziak.

Idazkari lanetan, Korporazioan jarduten duena, **Ander Cestona Unanue** jauna.

Alkateak ongi etorria eman ondoren gai zerrendari ekin dio

1.- 2020KO URRIAREN 26AN BURUTUTAKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BALITZ.-

Ez da aldaketarako inongo proposamenik aurkeztu, beraz, 2020ko urriaren 26an buruturiko saioaren akta bere horretan onartu da AHO BATEZ.

2.- 2020KO AURREKONTUAREN 2. ALDAKETA.-

Alkateak adierazi du, egungo pandemiak denok astindu gaituela eta Udala ere bai. Urtearen hasieran onartutako aurrekontua 5.682.996,00 eurokoa izan zen. Apirilean aurrekontu aldaketa bat egin zela dio, merkataria, ostalari eta familiei laguntzeko, baina aurrekontuaren bolumen osoan ez zuela eraginik izan.

Ondorioz, proposatutako aurrekontu aldaketaren datu nagusiak hauek dira:

Sarrerak:

Behin betiko sarrerak.....	5.682.996,00 euro
Gehikuntzak.....	200.019,66 euro
Gutxikuntzak.....	476.611,00 euro
Behin betiko sarrerak.....	5.406.404,66 euro

Gastuak:

Hasierako gastuak.....	5.682.996,00 euro
Gehikuntzak.....	306.959,01 euro
Gutxikuntzak.....	583.550,35 euro
Behin betiko gastuak.....	5.406.404,66 euro

Aurrekontu aldaketako datu nagusi hauek, hiru aurrekontu aldaketa espedienteetan banatzen dira: 2020-KALD-000002-00, 2020-KALD-000003-00 eta 2020-KALD-000004-00.



ZESTOAKO UDALA

Onarpen ahalmenaren arabera 2020-KALD-000002-00 eta 2020-KALD-000003-00 Alkate Dekretuz onartu dira, Ogasun eta Konturen Jarraipen Batzordearen aldeko irizpenarekin, eta 2020-KALD-000004-00 espedientea udal batzarraren eskumena da.

Ondoren, Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakideen aldeko botoekin, honako erabaki hauek hartu ditu:

LEHENA.- Indarrean dagoen 2020ko Udal Aurrekontuaren barnean, kredituak aldatzeko 2020-KALD-000004-00 espedientea onartzea, jarraian zehazten den laburpenaren arabera:

Sarrerak:

Gehikuntzak..... 200.019,66 euro

Gastuak:

Gehikuntzak..... 200.019,66 euro

BIGARRENA.- Erabaki hau jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, hamabost eguneko epean, erreklamazioak aurkez ahal daitezen; horrelakorik aurkeztuko ez balitz, akordio hau behin betirako onartutzat emango dela zehaztuz, erabaki gehigarririk gabe.

3.-SANSINENEA-ERREKA POLIGONOKO A.1-3.3 PARTZELARI DAGOKION XEHETASUN AZTERLANA BEHIN BETIKO ONARTZEA.-

Alkateak adierazi du hirigintzako tramite bat dela gai hau. Sansinenea poligonoan Siemens enpresa garatzen ari den pabiloi batean lerrokadurak gainditzen zirelako obra geldiarazi zitzaizela eta Xehetasun Azterlan honekin jasotzen direla egin beharreko aldaketak.

Hala, udal-teknikariak igorri zuen txostena, korporazioko Idazkaritzak igorri zuen txosten juridikoa ikusita, eta, orobat, Hirigintza eta Pertsonaleko Batzordeak igorri zuen aldeko irizpena kontuan hartuta, Udalbatzak apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak, 22.2.c) artikuluan ematen dizkion eskumenak baliatuta, zinegotzi jaun-andreek gaia eztabaidatu ondoren, gerturatutako aldeko hamaika botoekin, beraz, legezko kideen gehiengo osoarekin, **honako hau erabaki du:**

Lehena.- “Zestoako herri plangintzako Arau Subsidiarioetako Sansinenea-Errekako A1.3-3 partzelaren Xehetasun Azterlana”-ri behin betiko onespina ematea.

Bigarrena.- Interesatuari erabakia jakinaraztea.

Hirugarrena.- Ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen 89.3 artikulua dionaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Planeamenduko Erregistrora kopia bat bidaltzea.



ZESTOAKO UDALA

Laugarrena.- Ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen 89.5 artikulua dioenaren arabera, hartutako erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan ere argitaratzea.

4.- ZESTOAKO UDALAREN ETA “OIN-HERRI, HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTEA”-REN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.-

Aitor Salegi zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du, Euskal Herriko herrien sare bat osatzea dela helburua aholkularitza zerbitzu bat emateko. Urtean zehar ekitaldiak antolatuko direla eta oinarria herri hezitzailea dela.

Hitzarmenak honela dio:

“Zestoako Udalaren eta “OinHerri, Herri Hezitzaileak sustatzeko elkarte”ren arteko lankidetzaren hitzarmena zazpi kontzeptutan oinarritzen da “OinHerri, herri hezitzailea”k proposatzen duen eredua.

Zazpi eremu horiek elkarrekin ezkontzen, garatzen eta aberasten dira, eta, proposamen koherente eta oso bat egin ahal izateko, zazpiek halaberrez elkarrekin joan behar dutela uste dugu. Eta horrela formulatu ditugu gure lan-eremua eta xedea:

Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen hauren kultura aitortzea; hori oinarri hartuta, haurrei benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena ematea; eurek eraikitako aisia hezitzaile eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean berdinean eta parekide izanez eta ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana indartzea, eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea.

Haurrez dihardugunean, jendarteko zaugarrienez ari gara; hala nola, etorri berriak, gazteak, emakumeak, adindunak, aniztasun psikiko edo funtzionala dutenak..., hots, pertsona guztietatik dihardugu.

Gainera, herriko lan-taldea herriko hiru zutabe hauek osatzen dutela ziurtatzen da: Udalak, Hezkuntzak eta Herrigintzak.

Zestoako herrian bertan proposatuko dira egitasmoak, herrian ezarritako lehentasunen arabera. Saretzeko bokazioa izango du, parte-hartze metodologiak erabiliz, parte hartzen dugun pertsonak izatetik harago, partaide izatera igarotzeko helburuarekin.

Aldi berean, herriko beste ekimenekin koordinatu beharko dira, eta denak bateratzeko guneak eta praktikak sortzeko aukera eskaini beharko da. Horren baitan, hiru ezaugarri hartu behar dira kontuan:



ZESTOAKO UDALA

- Herrian lehendik dagoena ez ordezkatzeko printzipioa.
- Ez dagoena sortzeko printzipioa.
- Herriko bestelako prozesuak kontuan hartzea, eta, ahal dela, bateragarri edo osagarri egitea.

“OinHerri, herri hezitzailea”k herrietako parte-hartze esperientziekin OinHerri webgunea elikatuko du, herrien arteko esperientzien trukea erraztuko du eta Zestoako herriarekin harremana izango du haren beharrak ezagutzeko eta aholkua eskaintzeko.

Zestoako herriak, berriz, “OinHerri, herri hezitzailea” egitasmoa bideragarri egiteko asmoz, biztanleriaren arabera dagokion urteko kuota hartuko du kontuan.

AZALTZEN DUTE

- I. Zestoako herriak “OinHerri, Herri Hezitzailea”n sartzeko konpromisoa hartzen duela.
- II. Zestoako herriak aurrera eramango dituen egitasmo, ekintza eta abarretan Hitzarmen honek islatzen dituen zazpi oinarriak lantzeko konpromisoa hartzen duela.
- III. Zestoako herriak “OinHerri, herri hezitzailea” egitasmoa finantzatzeko, 1.500 euro ordainduko dituela 2.020. urteko kuotari dagokionez.
- IV. “OinHerri, herri hezitzailea”k herrien arteko esperientzien trukea erraztuko duela, honetarako sorturiko www.herrihezitzailea.eus web-gunea baliatuz eta urtean sarea osatzen duten herrien arteko 2 bilera antolatuz.
- V. “OinHerri, herri hezitzailea”k trebakuntzarako eta ezagutzaren eraketa kolektiboa bultzatzeko jardunaldiak antolatuko dituela.
- VI. “OinHerri, herri hezitzailea” k Zestoako lan-taldearen beharrak ezagutzeko eta aholkua eskaintzeko konpromisoa hartzen duela.

Aholkularitza zerbitzua herriak dituen beharren arabera zehaztuko da:

- Dagoeneko proiektuak martxan dituzten herriei Oinherriren markora nola ekarri edo egokitu aztertzeko aholkularitza eskainiko zaie.
- Proiektu berriak martxan jarri nahi dituzten herriei, egin beharreko bidea zehazten lagunduko zaie eta kanpo zerbitzuak beharko balituzte, haiei buruzko aholkularitza eskainiko zaie.

Zestoako herriak eta “OinHerri, Herri Hezitzaileak sustatzeko elkarteak”k, bertan jasotako konpromiso eta oinarriak betetzearekin bat egiten dute Horrenbestez, aipatu hitzarmenaren edukia Udalarentzat interesgarritzat jotzen duenez, Zestoako Udaleko Udal Batzarrak, Gazteria, kirol eta jai batzordearen proposamena jarraiki, eta gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakideen aldeko botoekin, honako erabaki hauek hartu ditu:



ZESTOAKO UDALA

ERABAKITZEN DU

Lehena.- Hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- Alkateari hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

5.- HONDAKINEN BILKETA SISTEMAREN EGOKITZAPENA.-

Alkateak adierazi du, gaia ingurumen batzordean aztertu dela.

Udal Batzarrak, Ingurumen batzordearen aldeko irizpena kontuan hartuta, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakideen aldeko botoekin, honako erabaki hauek hartu ditu:

LEHENA.- Zestoan hondakinen bilketa sisteman egokitzapena onartzea, ontzi arinak edukiontzi bidez jasotzeko.

BIGARRENA.- Erabakia Urola Erdiko Mankomunitateari jakinaraztea.

6.-EHBILDUREN MOZIOA, SAHARAKO AZKEN GERTAKARIAK DIRELA ETA.

Alkateak adierazi du, Saharako azken gertakarien inguruan beste mozio bat dagoela Zestoako Wadnak aurkeztua eta ondorioz EHBildurena utzi egingo dela eta Wadnaren aztertuko dela protagonismoa beraiei emanaz.

7.- ZESTOAKO WADNA TALDEAREN ESKAERA: MENDEBALDEKO SAHARAKO SU-ETENAREN AMAIERAREN AURREAN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EGITEKO PROPOSAMENA.

Wadnako bi ordezkari irakurri dute idatzia, eta honela dio:

“MENDEBALDEKO SAHARAKO SU-ETENAREN AMAIERAREN AURREAN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EGITEKO PROPOSAMENA

2020ko azaroaren 13an, Marokoko Indar Armatuak nahita urratu zuten 1991tik indarrean dagoen Marokoko Erresumaren eta Fronte Polisarioaren arteko Su Eten Akordioa.

Marokoko Erresumak Guergerateko legez kanpoko pasabidera indar militarrek bidali zituen, duela lau astetik eremu horretan manifestazioak egiten ari ziren saharar herritarrek erreprimitzera.

Marokok 2001ean ireki zuen pasabide hori, Nazioarteko Zuzenbidea urratuz. Nazio Batuen Bake Akordioak (1988) eta Marokoren eta Fronte Polisarioaren arteko akordio militarrek Marokoko harresi militarrean pasabideak irekitzea debekatzen dute.



ZESTOAKO UDALA

Indar marokoarren erasoaldiak eta Fronte Polisarioak saharar populazio zibilaren defentsan emandako erantzun legitimoak harresian zehar hainbat liskar eragin ditu. Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko Presidenteak, adierazpen baten bitartez amaitutzat eman du Fronte Polisarioak eta Marokoko Erresumak 1991n sinatutako su-eten konpromisoa.

Gertakari horien aurrean, “Zestoako Sahararen aldeko Wadna Elkarteak”, Sahara Euskadi Mugimenduari eta Euskadiko Fronte Polisarioaren Ordezkaritzarekin batera:

- *BERRESTEN DUGU zalantzarik gabeko elkartasuna diogula sahar herriaren eta haren legezko ordezkaritza Fronte Polisarioaren borrokari.*
- *Marokoko Erresumari EGOZTEN DIOGU 1991n Su-Etena apurto izana, eta sortu den eta Magrebeko eskualde osora zabal daitekeen ezegonkortasunaren erantzunkizuna.*
- *MINURSOri eta Nazio Batuei eremuan segurtasuna eta sahararren giza eskubideen zaintza berma dezatela ESKATZEN DIEGU; eta, besterik gabe, autodeterminazio-erreferendumaren bidez, Mendebaldeko Saharako gatazkaren konponbide bidezkoa eta behin betikoa susta dezatela.*
- *Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeari Mendebaldeko Saharan gertatzen den guztiarengatik dituen erantzunkizunak bere gain har ditzala ESKATZEN DIOGU; izan ere, Lurralde Ez-autonoma da, Marokok legez kanpo okupatua, NBERen agindupean, eta gatazkan dauden bi aldeak Genevako Hitzarmenaren sinatzaileak dira.*
- *Espainiako gobernuari Mendebaldeko Shara “de iure” administratzen duen potentzia gisa duen erantzunkizuna bere gain har dezala EXIJITZEN DIOGU; eta horren arabera joka dezala, autodeterminazio-erreferendumaren antolaketan eta Saharako biztanleria zibilaren babesean parte aktiboa izanik.*

Sahara Euskadi Mugimenduari eta Fronte Polisarioaren Ordezkaritzarekin batera Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa babesteko deitzen dituen mobilizazioetan parte hartzea GONBIDATZEN ditugu euskal herritarrek.”

Alkateak elkartasuna adierazi die, gu ere herri zapaldu baten garen moduan.

Garikoitzek ere bat egiten du mozioarekin.

Ontzat emana da mozioa aho batez.

8.- MALEN ETXEAREN MOZIOA: EZOHIKO GARAIETAN APARTEKO IRTENBIDEAK.

Nerea Odriozola zinegotziak irakurri du mozioa, eta honela dio:



ZESTOAKO UDALA

“Ezohiko garaietan, aparteko irtenbideak.

Euskadi osasun larrialdiko egoeran dago, zainketa-lanak eta familia eta lana uztartzeko moduak berrantolatu behar dira, egiturazkoak diren desberdintasunak are eta sakonagoak bihur ez daitezten, eta salbuespen-egoera hau ez dadin izan etxeetan zaintzaileen esplotazioa normalizatzeko eta justifikatzeko aterki;. Izan ere, gizarte osoak dakien bezala, emakume etorkinak dira etxe barneko langileen % 95.

Covid – 19ren krisiaren ondorioz, etxeko zaintzaileen eskaria handitzen ari da, familiek beldurra diote adinekoak instituzioetan sartzeari, eta modu eskandalagarrian ari dira normalizatzen egunean 24 ordu eta astean 7 eguneko zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak edo eta beren burua "etxe barruko langileen sektoreko enpresa" izendatzen dutenak, azken hauek %40ko hazkundera izan dute azken urtean. Horiei gehitu behar zaizkie, eraikuntza enpresa handiak eta nazioarteko funtsak, zaintza-enpresa bihurtu direnak, eta Udal eta Erkidegoek egiten dituzten etxez etxeko zaintza zerbitzuen esleipenak bereganatzen dituztenak.

Euskadin, zaintza-politika publikoak logika kapitalista, patriarkal eta neokolonial batetik antolatuta daude eta Egoitzen, Eguneko Zentroen eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuak udalen bidez ematen dituen arreta-orduen kudeaketaz arduratzen dira; aldiz, langile etorkinek etxeetan egiten duten zaintza-unibertso osoa ez da kontuan hartzen. Etxean bertan bizitzen, 24 orduan lanean, atsedenerako tarterik gabe eta LGS gainditu gabe daude, eta hori ez da kontuan hartzen, ez dira funtsezkotzat hartzen eta langile horiek dira, hain zuzen ere, salbuespenezko egoera horren pisu handiena jasaten dutenak.

Bizi dugun egoera sinesgaitza da; beraz, aparteko irtenbid eak eskatzen ditu, inor atzean ez geratzea bermatuko dutenak. Hori dela eta, azaroaren 2an, Malen Etxeak agerraldia egingo du Eusko Legebiltzarreko Lan eta Enplegu Batzordearen aurrean, herritarren ordezkariari gogorarazteko langile etorkinek etxeetan egiten duten zaintza-lana aitortu behar dela eta mendekotasuna duten pertsonen arretarako sistema unibertsal eta publikoan sartu behar dutela langile horiek. Zaintzak, kalitatezkoa izango bada, kalitatezko enplegua behar du.

Beraz, Zestoako Udalari, Eusko Legebiltzarrean aurkeztu den agiriko ondorengo puntuak babes ditzala eskatzen diogu:

1 Zainketa-lanak egiten dituzten etorkin guztiei "etxeko laguntzaile sozio-sanitario" kategorian gaikuntza profesionala ematea, haien administrazio-egoera edozein dela ere. Era horretan, osasun-krisian egindako lanari aitortza egiteko, ezinbestekoa izan baitzen euskal sistema ez itotzeko.

2. Gobernu Zentralari eskatzea etxeko laguntzaile soziosanitarioak sar ditzala Euskal Autonomia Erkidegoan eta, bereziki, Gipuzkoan, 557/2011 Errege Dekretuaren 65.1 artikulua babespean. Izan ere, profil profesional horren eskaria asko handitu da, jarduera ekonomikoaren sektore horrek enplegu tekniko osoa du, eta eskariak egunero hazten dira. Hori eginez gero, emakumezko langileak erregularizatu ahal izango dira, ezkutuko ekonomiaren zati



ZESTOAKO UDALA

bat azaleratu ahal izango da eta familiek mendekotasunagatik laguntzak eskuratu ahal izango dituzte.

3. konpromiso etiko eta politikoa hartzea etxe barruko langilearen erregimena desagerraraztekoa. Politika publikoen helburu bat izan behar du horrek, trantsizio batetik hasita – harik eta sistema modu justu eta legezkoan antolatzen den arte – lagundu ditzatela astean 40 orduko kontratuak egitea eta gaueko arretagatik osagarriak ordaintzea. Gutxienean soldatak ezin du erreferentzia izan bizitza garatzeko eta zaintzeko funtsezko jarduera batentzat, ez behintzat, giza garapenean eta ongizatean kalitate-estandarrik lortu nahi dituen gizarte batean.

4. Erakunde bakoitzaren eskumeneko esparruetan, hitzarmen-marko bat eraikitze lan egitea, zaintza-arloko lanbide-kategoriak aitortzeko: laguntzaile sozio-sanitarioak, laguntzaile pertsonalak, garbitzaileak, beren eginkizunen arabera soldatak finkatzeko, balioa emateko eta ikusgarri egiteko, langileen araubide orokorraren barruan soldata-taulak osatuta.

5. Erakundeetan lan egiteko zainzaileen prestakuntzarako baliabideak egokitu eta antolatzea. Era berean, horietara sarbidea erraztu dezatela langile guztientzat; online modalitateak jarrita, ordutegiak kontuan izanda eta eskaerari egokitutako kupoak aintzat hartuta.

6. Zerga-politikak eta ekonomia solidarioa sustatzeko politikak garatzea, etxez etxeko zerbitzuetako lan elkartuko kooperatibak sustatzeko. Horretarako, administrazioek laguntza emango dute langileek beraiek kudeatutako kooperatibak eratzeko, haien jasangarritasun ekonomikoa sustatzeko programak bultzatuta.

Zaintza-sistema eraldatzea premiazkoa, aginduzkoa eta saihestezina da gizarte justu batean bizi nahi badugu, diskriminaziorik gabe, justizia sozialarekin eta berdintasunean.

Zestoan, 2020ko azaroaren 24an”

Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakideetatik seiren aldeko botoarekin eta bosten abstentzioarekin mozioa onartu du.

ERREGU ETA GALDERAK.-

Ez dago erregu edo galderarik

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa arratsaldeko zortziak eta berrogei eta hiru direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.